

ERABAKIA, zeinaren bidez 25.000 euroko dirulaguntza izendun bat ematen baitzaio EQUINOCCIO NATURA ELKARTEari (IFZ . G-19905868) eta baimena ematen baita hitzarmena egiteko aipaturiko dirulaguntzaren aplikazio baldintzak ezartzeko.

Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailaren 2025eko aurrekontuetan, bada partida EQUINOCCIO NATURA ELKARTEari dirulaguntza izendun bat 2024/0042 proiektuaren, 172132 programaren, 45100 azpikontzeptuaren eta 0208 sailkapen organikoaren kontura 25.000 euroko gehieneko zenbatekoa finantzatzeko konpromisoa hartzen du.

Dirulaguntza hori ematea proposatzen da Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 26.1. artikuluekin erlazionatutako 20.2a) artikulua ezarritakoa dela bide.

Hori dela eta, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17. eta 66. artikuluek eta Dirulaguntzei buruzko Erregelamendu onesten duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretua, 12. eta 50. artikulua. emandako ahalmenak erabiliz, hitzarmen mota horiek izenpetzea baimentzeko eskumena Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio.

Hori dela eta, sinatzen duenak hitzarmen-proiektu hau onartzeko ohorea du, Bizkaiko Foru Aldundian aurkez dadin

ERABAKIA

LEHENA. EQUINOCCIO NATURA ELKARTEari (IFZ G-19905868) 25.000 euroko dirulaguntza ematea, eta dirulaguntza hori

ACUERDO por el que se otorga una subvención nominativa de 25.000 € a la ASOCIACIÓN EQUINOCCIO NATURA (CIF . G-19905868) y se autoriza la celebración del convenio por el que se establecen las condiciones para la aplicación de la mencionada subvención.

Los presupuestos del año 2025 de este Departamento de Medio Natural y Agricultura contemplan una partida nominativa a favor de la ASOCIACIÓN EQUINOCCIO NATURA, por importe de 25.000€, con cargo al proyecto 2024/0042, programa 172132, subconcepto 45100 y clasificación orgánica 0208.

Se propone la concesión de dicha subvención en virtud de lo dispuesto en el artículo 20.2 a) relacionado con el 26.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

En su virtud, en uso de las facultades conferidas por los artículos 17 y 66 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, de Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia y y los art. 12 y 50 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, la competencia para autorizar la firma de este Convenio corresponde a la Diputación Foral.

Por todo lo expuesto, el que suscribe, tiene el honor de someter a la consideración de V.I., para su elevación a la Diputación Foral, el siguiente proyecto de

ACUERDO

PRIMERO. Otorgar una subvención de 25.000 € a la ASOCIACIÓN EQUINOCCIO NATURA (CIF G-19905868) así como autorizar la celebración



aplikatzeko baldintzak ezartzen dituen hitzarmena, eranskin gisa doala, sinatzea baimentzea, 2025eko ekitaldiko 2024/0042 proiektuaren, 172132 programaren, 45100 azpikontzeptuaren eta 0208 sailkapen organikoaren kontura aurrekontu proiektuan. Hori guztia, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 26.1. artikuluekin erlazionatutako 9. eta 20.2a) artikulua eta foru arau hori garatzeko dirulaguntzen arautegia onesten duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 12. eta 50. artikuluek ezarritakoa dela bide.

BIGARRENA. Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko foru diputatuari ahalmenak ematea aipatutako hitzarmena sinatzeko eta haren garapenari begira behar diren xedapen guztiak emateko.

HIRUGARRENA. Erabaki honen berri ematea EQUINOCCIO NATURA ELKARTEari, hitzarmena harekin sinatzen baita.

de convenio, que se une como Anexo, por el que se establecen las condiciones para la aplicación de la mencionada subvención con cargo al presupuesto general del ejercicio 2025 del proyecto 2024/0042, programa 172132, subconcepto 45100 y clasificación orgánica 0208, todo ello en virtud de los artículos 9 y 20.2a) relacionado con el 26.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral y los artículos 12 y 50 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la mencionada Norma Foral.

SEGUNDO. Facultar a la diputada foral de Medio Natural y Agricultura para la firma del referido Convenio así como para que dicte todas las disposiciones necesarias para su desarrollo.

TERCERO. Comunicar el presente Acuerdo a la ASOCIACIÓN EQUINOCCIO NATURA con el que se suscribe el Convenio.

Ingurumenaren Kalitatea Zaintzeko zerbitzuko burua
Jefe del Servicio de Calidad Ambiental.
UNAI GANGOITI CISCAR

O.I./VºBº

Ingurumeneko zuzendari Nagusia
Director general de Medio Ambiente
ALEJANDRO PELAEZ ASTORQUIA

Eginbidea: aurreko argipide txostenean jakinarazitakoaren arabera, bidezkoa erabakitzeko, Foru Aldundiari igorri

Providencia: de conformidad como se propone en el informe precedente, elevese a la Diputación Foral a fin de que se resuelva lo que proceda.

Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saileko diputatua/
Diputada Foral de Medio Natural y Agricultura
ARANTZAZU ATUCHA LEJARRETA



BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA EQUINOCCIO NATURA ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA, BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO 2025RAKO AURREKONTU OROKORRETAN JASOTAKO DIRU- LAGUNTZA IZENDUNA GAUZATZEKO DENA.

Alde batetik, BIZKAIKO FORU ALDUNDIA, eta horren izenean eta ordezkartzan, Arantzazu Atucha Lejarreta andrea. Azkenak, Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko foru diputatua den aldetik, honako hitzarmen hau sinatzeko ahalmena du, Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2025ko XXXXXren Xeko bileran hartutako erabakia dela bide.

Bestetik, Sergio de Juan Zuloaga jauna, Equinoccio Natura Elkartearen izenean eta hura ordezkatzuz, aurrerantzean "Erakunde onuraduna", IFK: G-11905868; sozietatearen helbidea: Izarra-Urkabustaiz (Araba), Ugarte kalea 8, 3. C, presedentearen kudeatzailea.

Alderdiek dagokien erakundearen izenean eta ordezkari gisa jardun dute eta elkarri aitortzen diote jarduteko gaitasun juridikoa, hitzarmen hau egiteko beharrezkoa dena,

ADIERAZI DUTE

LEHENENGOA. Klima aldaketari eta biosferari buruzko tailerrak egitea Bizkaiko ikastetxeetan, 2025. urtean

Bizkaiko Foru Aldundiak egingo ditu BloTA tailerrak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Prestakuntza eta Berrikuntza Sustatzeko Zentroekin koordinatuta, eta Equinoccio Natura Elkarreak diseinatu eta eman ditu. Proiektu honen helburu nagusia naturari buruzko ingurumen-hezkuntza eta -partaidetza sustatzea eta natura-ingurunea errespetatzen duten ohiturak sortzea da

CONVENIO ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y LA ASOCIACIÓN EQUINOCCIO NATURA POR EL QUE SE INSTRUMENTALIZA LA SUBVENCIÓN NOMINATIVA INCLUIDA EN LOS PRESUPUESTOS GENERALES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA PARA EL AÑO 2025.

De una parte, la DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA, y en su nombre y representación, D^a Arantzazu Atucha Lejarreta, en calidad de diputada foral de Medio Natural y Agricultura, quedando facultada para suscribir el presente convenio, por acuerdo de la Diputación Foral en su reunión del Consejo de Gobierno celebrado el día X de XXXX de 2025.

De otra parte, D. Sergio de Juan Zuloaga, en nombre y representación de la Asociación Equinoccio Natura,, en adelante "Entidad beneficiaria", con C.I.F. G-11905868 y domicilio social en Izarra-Urkabustaiz (Álava-Araba), c/ Ugarte, 8-3^oC, en calidad de presidente de esta

Las partes actúan en nombre y representación de sus entidades respectivas, reconociéndose mutuamente capacidad jurídica de obrar necesaria para la celebración del presente Convenio.,

EXPONEN

PRIMERO. Desarrollar talleres de cambio climático y biosfera en centros escolares de Bizkaia durante el año 2025.

Los talleres BloTA se desarrollarán por la Diputación Foral de Bizkaia, en coordinación con los Centros de apoyo a la formación e innovación educativa (Gobierno Vasco) y diseñados e impartidos por la Asociación Equinoccio Natura El objetivo principal de este proyecto es promover la educación y participación ambiental sobre naturaleza y crear hábitos respetuosos con el medio natural



BIGARRENA. BloTA tailerren gaiak Natura (biodibertsitatea, geodibertsitatea, paisaia, 2030 Agendaren Garapen Iraunkorreko Helburuak, ekosistemen zerbitzuak eta klima-aldaketa eta biosfera (ingurumenaren eta pertsonen arteko elkarrekintza positiboa) dira. Hartzailleak Bizkaiko ikastetxeetako (6-12 urte) lehen hezkuntzako ikastaroak izan dira. Eta doakoak izango dira ikastetxeentzat, eta 2024-2025 ikasturtean garatu dira; oro har, gehienez ere bi tailer egin daitezke doan ikastetxe bakoitzeko. Ikasturte bakoitzeko 3 gela edo gehiago dituzten ikastetxeetan, doako 3 tailer egin ziren.

HIRUGARRENA.. Jasangarritasun-proiektu bat da, ingurune natural hurbilena ezagutaraztea ez ezik, hezkuntza-biztanleen eta haien familien artean ohitura iraunkorrak sortzea ere helburu duena.

Proiektu zirkular bat da, planeta iraunkorrago bat lortzeko erakunde publikoek, enpresek eta herritarrek hartu behar dugun konpromisoa erakusten duena.

Bizkaiko Foru Aldundiaren helburuen artean, baditugu lurraldearen eta ingurumen-baliabideen erabilera iraunkorrari buruz sentsibilizatzea, eta, azken batean, natura-ondarea zaintzea, ikerketa aplikatuaren eta ingurumen-hezkuntzaren bidez, diziplinar-teko eta erakundearen arteko ikuspegi batetik, natura-zientziak zein gizarte-zientziak eta lankidetzaren publikoaren pribatuaren eta gizarte zibilaren artekoa aintzat hartzen dituen. Horrela ezartzen da Bizkaia Denontzat agintaldiko planean (2023-2027)

LAUGARRENA. Bizkaiko Lurralde Historikoko 2025eko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 3/2024 Foru Aginduaren bidez 25.000€-ko dirulaguntza izenduna ezarri da Equinoccio Natura Elkartearen alde (2024/0042 proiektua, 172132 programa, 45100 azpikontzeptua eta 0208 sailkapen organikoa).

SEGUNDO. Los temas de los talleres BloTA son la Naturaleza (biodiversidad, geodiversidad, paisaje, Objetivos de Desarrollo Sostenible de la Agenda 2030, servicios de los ecosistemas y cambio climático) y biosfera (interacción positiva medio ambiente y personas). Los destinatarios han sido los cursos de educación primaria de centros escolares de Bizkaia (6-12 años). Y serán gratuitos para los centros escolares, desarrollándose durante el curso escolar 2024-2025, con un máximo por regla general de dos talleres gratuitos por centro. En los centros escolares con 3 o más aulas por curso, se realizan 3 talleres gratuitos.

TERCERO. Es un proyecto de sostenibilidad que no sólo tiene el objetivo dar a conocer el medio natural más cercano, sino también crear hábitos sostenibles entre la población educativa y sus familias.

Es un proyecto circular que muestre el compromiso que debemos adoptar organismos públicos, empresas y ciudadanos para conseguir un planeta más sostenible.

Entre los objetivos de la Diputación Foral de Bizkaia está el de sensibilizar sobre el uso sostenible del territorio y los recursos ambientales, el impulso de la economía circular y, finalmente, la conservación del patrimonio natural, a través de la investigación aplicada y la educación ambiental, desde una óptica interdisciplinar e interinstitucional que englobe tanto las ciencias naturales como las sociales y la colaboración pública-privada-sociedad civil. Así se establece en el Plan de Mandato Bizkaia Denontzat (2023-2027),

CUARTO. Que mediante Norma Foral 3/2024, de 27 de diciembre, de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2024, se establece una partida nominativa a favor de la Asociación Equinoccio Natura por importe de 25.000 €, proyecto 2024/0042, programa 172132, subconcepto 45100 y clasificación orgánica 0208.



BOSGARRENA. Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak 20.2.a) artikuluan ezartzen duena dela bide (26.1 artikularekin lotuta), hitzarmen hau sinatzea bidezkoa da dirulaguntza horren aplikazioa arautu behar duten baldintzak ezarri ahal izateko.

QUINTO. Que en virtud de lo dispuesto en el artículo 20.2.a) relacionado con el artículo 26.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral, procede la firma del presente Convenio para el establecimiento de las condiciones que han de regular la aplicación de la mencionada subvención.

KLAUSULAK

CLÁUSULAS

LEHENENGOA. - Hitzarmenaren xedea.

Hitzarmen honen xedea da 2025eko ekitaldian Bizkaiko Foru Aldundiaren 25.000 euroko dirulaguntza izendun bat ematea Equinoccio Natura Elkarteari, bertan jasotako jardueren guztizko aurrekontuarekin, 25.000 eurokoa.

PRIMERA. - Objeto del convenio.

El presente convenio tiene por objeto la concesión de una subvención nominativa de la Diputación Foral de Bizkaia en el ejercicio 2025, por importe de 25.000 euros a la Asociación Equinoccio Natura con un presupuesto total de las actividades incluidas en el mismo por importe de 25.000 euros.

Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiak (Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saila) eta Equinoccio Natura Elkartek adostu dute dirulaguntza horren xedea den jarduerak Bizkaiko Lurralde Historikoan finantzatzeko erabiliko dela, **“KLIMA ALDAKETARI ETA BIOSFERARI BURUZKO TAILERRAK”** izeneko proiektuaren barruan, 2025. urtean, eta hitzarmen honen I. eranskinean agertzen den proiektuarekin bat etorritz.

Asimismo, la Diputación Foral de Bizkaia (Departamento de Medio Natural y Agricultura) y la Asociación Equinoccio Natura, convienen que la subvención se destinará a financiar el desarrollo de las actividades del objeto de la subvención en el Territorio Histórico de Bizkaia, dentro del proyecto **“TALLERES DE CAMBIO CLIMÁTICO Y BIOSFERA”**, durante el año 2025 y de conformidad con el proyecto que figura como Anexo I al presente convenio.

BIGARRENA.- Bizkaiko Foru Aldundiaren Konpromisoak.

Hitzarmen honen esparruan, Bizkaiko Foru Aldundiak, Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailaren bitartez, 2024/0042 proiektuaren, 172132 programaren, 45100 azpikontzeptuaren eta 0208 sailkapen organikoaren kontura 25.000 euroko gehieneko zenbatekoa finantzatzeko konpromisoa hartzen du.

SEGUNDA. - Compromisos de la Diputación Foral de Bizkaia.

La Diputación Foral de Bizkaia, a través del Departamento de Medio Natural y Agricultura, en el marco del presente Convenio, asume el compromiso de financiar en la cantidad máxima de 25.000 euros con cargo al proyecto 2024/0042, programa 172132, subconcepto 45100 y clasificación orgánica 0208.

HIRUGARRENA. -EQUINOCCIO NATURA ELKARTEAren konpromisoak.

TERCERA. – Compromisos de la ASOCIACIÓN EQUINOCCIO NATURA



Entitate onuradunak konpromisoa hartzen du diruz lagundutako jarduerak I. ERANSKINEKO zehaztapenekin bat etorri garatzeko, eta honako programa hauen bidez garatuko dira:

Tailerrak bi ordu edo bi ordu eta erdiko izango du (eskolek aukeran) eta bi zati ditu:

- 1) Hitzaldia ikasgelan, aurkezpen batekin eta material didaktiko lagungarriekin.
- 2) Ibilbide gidatua ikastetxetik hurbil dagoen leku edo inguru batean.

Tailerrak modu ludiko eta parte-hartzailean ezagutzeko eta ikasteko diseinatu dira. Taldeak ikastetxean edo ingurunean jarduera praktikoren bat egin dezan bideratzen dira. Aurrez, ikastetxeekin hitz egin da, haien errealitatera eta kezka egokitzeke.

Tailerreko hizkuntza eskolak aukeratutakoa izan da: euskara edo gaztelania. Eta hiru tailerren artean aukeratu ahal izan dute:

1. Hiri- eta landa-biodibertsitateari buruzko tailerra.
2. Natura-ingurunea ikertzeko eta ezagutzeko tailerra.
3. Hiri-baratzeei eta biodibertsitateari buruzko tailerra.

Tailer horiek onarpen ona dute ikasleen eta irakasleen artean. Modu ludikoan, baina interes zientifikoarekin, inguratzen dituen biodibertsitatera hurbiltzean eta behatzean, orain arte oharkabean igaro zaizkien izaki bizidunak eta prozesu biologikoak aurkitzen dituzte. Horren ondorioz, ingurumen-arazoez eta maila pertsonalean gure ingurunea nola hobetu dezakegun hobeto jabetzen dira.

Entitate onuradunak konpromisoa hartu du Bizkaiko Foru Aldunditik jasotako laguntza guztiak proiektuan adierazitako kostuak ordaintzera bideratzeko.

Entitate onuradunaren erantzukizun eskusiboa izango da hirugarrenei eragin dakizkiekeen kalte

La entidad beneficiaria se compromete a desarrollar las actividades subvencionadas de acuerdo con las determinaciones del citado ANEXO I, y que se desarrollaran a través de los siguientes programas:

El taller tendrá una duración de dos horas o dos horas y media (a elegir por las escuelas) y consta de dos partes:

- 1) Charla en aula, con una presentación y materiales didácticos de apoyo.
- 2) Itinerario guiado en un lugar o entorno cercano al colegio.

Los talleres se han diseñado para conocer y aprender de una forma lúdica y participativa. Se orientan para que el grupo desarrolle en el centro o en su entorno alguna actuación práctica. Previamente se ha hablado con los centros, adaptándolos a su realidad e inquietud.

El idioma del taller ha sido a elección de la escuela, euskera o castellano. Y han podido elegir entre tres talleres distinto:

1. Taller de biodiversidad urbana y rural.
2. Taller de investigación y conocimiento del medio natural.
3. Taller de huertos urbanos y biodiversidad

Estos talleres tienen una buena aceptación entre el alumnado y el profesorado. Al acercarse y observar de forma lúdica, pero con interés científico, la biodiversidad que les rodea, descubren seres vivos y procesos biológicos que hasta ahora les habían pasado inadvertidos. Esto hace que sean más conscientes de los problemas ambientales y de cómo a nivel personal podemos mejorar nuestro entorno

La entidad beneficiaria se compromete a destinar la totalidad de las ayudas recibidas de la Diputación Foral de Bizkaia a sufragar los costes señalados en el proyecto.

Será responsabilidad exclusiva de la entidad beneficiaria hacer frente a cualquier



eta/edo galeren edozein ondoriori aurre egitea, jarduera garatzeko ekintza edo ez-egite bidez egiten duen edozein jarduera dela-eta. Jarduera horrek, besteak beste, Boluntariotzari buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legean aurreikusitakoa beteko du, eta, beraz, Bizkaiko Foru Aldundiak ez du inolako erantzukizunik izango.

Entitate onuradunak sexismorik gabeko hizkuntza zein irudiak erabili beharko ditu, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan ezarritakoarekin bat. Halaber, genero-ikuspegia kontuan hartuta egin behar dira hitzarmen honen itzalpean egindako proiektu guztiak, eta haietan erabiltzen den hizkuntzan eta irudietan ezin da egon bereizkeria eragin dezakeen ezer, ez eta jarduera edo ekintza baztertzailerik ere.

Bestalde, pertsonen buruz sortzen den edozein estatistikatan datuak sexuaren arabera bereizi beharko dira, errespetatu beharko diren printzipio orokorrak adierazten dituen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 8ko 4/2005 Legeko 2, 3 eta 16 artikuluen babesean, 1/2022 Legea, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egitekoa bidez moldatua.

LAUGARRENA. Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak

Diruz lagun daitezkeen gastuak dira, aipatutako ekintzak kontuan hartuta, zalantza barik diruz lagundutako jardueraren izaerari erantzuten diotenak, behar-beharrezkoak direnaketa hitzarmenean ezarritako epean egiten direnak. Diruz lagundu daitezkeen gastuen eskuratze kostua ezin izango da inolaz ere merkatuaren balioa baino altuagoa.

Era berean, oro har, diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko da hitzarmenaren indarraldian egin dena. Hala ere, 2025eko urtarrilaren 1a baino

consecuencia derivada de los daños y/o perjuicios que se pudieran ocasionar a terceros, con motivo de cualquier actuación que realice por acción u omisión para el desarrollo de la actividad, que atenderá entre otros a lo previsto en la Ley 17/1998, de 25 de junio, de voluntariado, quedando por tanto la Diputación Foral de Bizkaia exonerada de toda responsabilidad al respecto.

La entidad beneficiaria deberá hacer un uso no sexista del lenguaje y de las imágenes, conforme a lo previsto en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. Todos aquellos proyectos realizados al amparo de este convenio incorporarán la perspectiva de género, no contemplando elementos de discriminación en el uso del lenguaje y de la imagen, ni actividades o acciones discriminantes.

Por otra parte, deberá desagregar los datos por sexo en cualquier estadística referida a personas que se genere, todo ello al amparo de los artículos 2, 3 y 16 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, modificada por la Ley 1/2022, de 3 de marzo, de segunda modificación de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres, en el que se señalan los principios generales que deberán respetarse.

CUARTA: Gastos subvencionables

Serán gastos subvencionables en relación con las actividades descritas, aquellos que, siendo correctamente justificados de conformidad con la normativa en vigor, están pagados a la fecha de liquidación del convenio, son necesarios y responden de manera indubitada a la naturaleza y al normal desarrollo del objeto del convenio. En ningún caso el coste de adquisición de los gastos subvencionables podrá ser superior al valor de mercado.

Asimismo, y de manera general, se considerará gasto subvencionable el que ha sido realizado en el plazo de vigencia del convenio. No obstante,



lehen egindako gastuak onartuko dira, baldin eta hitzarmenaren indarraldirako diruz lagundutako jardueraren prestaketekin zuzenean lotuta badaude, eta behar bezala justifikatzeko betebeharra badute.

se admitirán los gastos realizados con anterioridad al 1 de enero de 2025, siempre que se relacionen directamente con los preparativos de la actividad subvencionada para el periodo de vigencia del convenio, con la obligación de justificarse debidamente.

1.- Ez dira inolaz ere izango diruz lagun daitezkeen gastuak:

1.- En ningún caso serán gastos subvencionables:

a) Banku-kontuetako interes zordunak

a) Los intereses deudores de las cuentas bancarias.

b) Interesak, gainordainak eta administrazio-zehapenak nahiz zehapen penalak

b) Intereses, recargos y sanciones administrativas y penales.

c) Prozedura judizialen gastuak

c) Los gastos de procedimientos judiciales.

2.- Dirulaguntzaren pertsona onuradunak egiaz ordaintzen dituenen, zergak diruz lagun daitezke. Ez dira inola ere diruz lagunduko zeharkako zergak, berreskura edo oreka daitezkeenean, ezta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere.

2- Los tributos son gasto subvencionable cuando la persona beneficiaria de la subvención los abona efectivamente. En ningún caso se consideran gastos subvencionables los impuestos indirectos cuando sean susceptibles de recuperación o compensación ni los impuestos personales sobre la renta.

3.- Pertsona onuradunak zeharkako kostuak, arrazoiz dagozkion zatian, dirulaguntza jaso duen jarduerari egotziko dizkio, orokorrean onartutako kontabilitatearen printzipio eta arauekin bat eta, nolanahi ere, kostuak jarduera egin den egiazko denboraldiarekin bat datozen neurrian.

3.- Los costes indirectos habrán de imputarse por la persona beneficiaria a la actividad subvencionada en la parte que razonablemente corresponda de acuerdo con principios y normas de contabilidad generalmente admitidas y, en todo caso, en la medida en que tales costes correspondan al período en que efectivamente se realiza la actividad.

BOSGARRENA. - Finantzaketa, zenbatekoa eta aurrekontu kreditua

QUINTA. - Financiación, cuantía y crédito presupuestario.

Bizkaiko Foru Aldundiaren konpromisoa 2025ko ekitaldian EQUINOCCIO NATURA ELKARTEARI 25.000,00 euroko ekarpen ekonomikoa egitea da. Kopuru hori 2024/0042 proiektuaren, 172132 programaren, 45100 azpi kontzeptuaren eta 0208 sailkapen organikoaren kontura finantzatuko da.

El compromiso de la Diputación Foral de Bizkaia se concreta en la aportación económica a la ASOCIACIÓN EQUINOCCIO NATURA de 25.000,00 euros en el ejercicio 2025. Dicha cantidad se financiará con cargo al proyecto 2024/0042, programa 172132, subconcepto 45100 y clasificación orgánica 0208.



Bizkaiko Foru Aldundiak ez du finantzazio gehigarririk jarriko, eta, beraz, EQUINOCCIO NATURA ELKARTEAren jarduerengatik sortzen diren gastu guztiek, zenbateko hori gainditzen badute, kanpoko beste funts batzuetatik datorren finantzaketa izan beharko dute.

Entitate onuradunak hirugarren klausulan ezarritako konpromisoak betetzeko erabili behar du diru laguntzaren zenbateko osoa.

SEIGARRENA. - Aplikatu beharreko araubide juridikoa

Hitzarmen honen xede den diru-laguntza emateko honako hauek aplikatu dira: Bizkaiko Foru Administrazioaren diru-laguntzen araubide juridiko orokorra ezartzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, 9. eta 20.2.a) artikulua (26. artikuluekin lotuta); aurreko foru arau hori garatzen duen Diru-laguntzen Araudia onetsi duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretua, 12. eta 50. artikulua.

Hitzarmen honek administrazio izaera du. Hitzarmen honi dagokionez aginduzkoak izango dira, bertan xedatutakoaz gainera, zuzenean edo analogiaz aplikagarriak izan daitezkeen administrazioko zuzenbideko arauak.

Diru-laguntza emateko araubide juridikoa hauexek izango da:

a) 5/2005 Foru Araua, maiatzaren 31koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duena, eta hura garatzen duten xedapenak.

b) 34/2010 Foru Dekretua, martxoaren 23koa, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzeko Diru-laguntzen Araudia onesten duena.

La Diputación Foral de Bizkaia no aportará ninguna financiación adicional, por lo que todos los gastos que se devenguen por la realización de las actividades de la ASOCIACIÓN EQUINOCCIO NATURA que superen la mencionada cuantía, tendrán que contar con financiación proveniente de otros fondos externos.

La entidad beneficiaria deberá destinar la totalidad de la cuantía subvencionada al cumplimiento de los compromisos suscritos en la Cláusula Tercera.

SEXTA. - Régimen jurídico aplicable

La subvención objeto de este Convenio se otorga en virtud de los artículos 9 y 20.2.a), en relación con el artículo 26, todos de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, y los artículos 12 y 50 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la mencionada Norma Foral.

El presente convenio tiene naturaleza administrativa y se registrará, además de por lo dispuesto en el mismo, por las normas de derecho administrativo, que bien directamente o por analogía pudieran resultar de aplicación.

El régimen jurídico que regula la concesión de la subvención será:

a) La Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia y sus disposiciones de desarrollo.

b) El Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral de Subvenciones.



c) Halaber, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua aplikatuko da, kontu izanik erakunde pribatu hauei aplikatuko zaiela hurrengoak: aurrekontu-ekitaldian zehar Bizkaiko Foru Aldundiaren 100.000 euroren edo gehiagoren laguntzak edo diru-laguntzak jasotzen dituztenei edo haien urteko diru-sarreraren % 40 Aldundiaren laguntzetatik edo diru-laguntzetatik badator, betiere gutxienez 5.000 euro badira.

d) Hitzarmena bera eta administrazio-zuzenbidearen gainerako arauak eta, horiek izan ezean, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.

ZAZPIGARRENA.- Bateriaezintasuna beste diru-laguntza batzuekin.

1.- Foru Administrazioak emandako diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 16. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak onartutako Diru-laguntzen Araudiko 52.2e) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, Aldundiaren diru-laguntza hau bateraezina izango da edozein administrazio edo erakundek onuradunari ematen dion beste edozeinekin, baldin eta hitzarmenaren xedea garatu eta betearazteko bada.

Diru-laguntzei buruzko Foru Arauaren 18.3 artikulua ezarritakoari jarraiki, emandako diru laguntzaren zenbatekoa, bera bakarrik edo beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezin da izan inola ere, diru-laguntza jasotzen duen jardueraren kostua baino gehiago.

2.- Ildo horretan, entitate onuradunak Iraunkortasuna eta Ingurune Zaintzeko Sailari jakinarazi beharko dio, idatziz, hitzarmen honetako jarduerak finantzatzeko edozein dirulaguntza edo laguntza jaso izana, diru-sarrera berekiak barne: proiektuaren kostuaren aldean finantzaketa soberakina gertatzen bada, soberakin hori itzuli egin beharko da, dagozkion berandutza korrituekin

c) Asimismo, será de aplicación la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, teniendo en cuenta especialmente, que aquellas entidades que durante un ejercicio presupuestario perciban de la Diputación Foral de Bizkaia ayudas o subvenciones que alcancen al menos una cuantía de 100.000 euros o cuando el 40% del total de sus ingresos anuales tengan el carácter de ayuda o subvención pública foral, siempre que alcancen como mínimo 5.000 euros

d) El propio Convenio y las restantes normas de derecho administrativo y, en su defecto, se aplicarán las normas de derecho privado.

SEPTIMA. Incompatibilidad con otras subvenciones.

1.- A los efectos del artículo 16 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y del artículo 52.2e) del Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, la presente subvención foral será incompatible con cualquier otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, que la beneficiaria recibiera de cualquier Administración o ente público o privado, estatal, de la Unión Europea o de organismos internacionales para el Desarrollo y ejecución del objeto del convenio.

Conforme al artículo 18.3 NFS, el importe de la subvención concedida en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

2.- En este sentido, la entidad beneficiaria deberá comunicar por escrito al Dirección General de Medio Ambiente la concesión de cualquier subvención o ayuda, incluidos los ingresos propios, para la financiación de las actividades contempladas en el presente convenio: En el caso que se produzca un exceso de financiación respecto del coste del Proyecto, deberá



batera.

ZORTZIGARRENA. - Dirulaguntzaren ordainketa eta bermeen araubidea.

Hitzarmen hau sinatu ondoren ordainduko zaio Bizkaiko Foru Aldundiak entitate onuradunari laugarren klausulan ezarritako kopuruen ekarpena.

Entitate onuradunari ez zaio inolako bermerik eskatzen.

BEDERATZIGARRENA. - Burutzeko epea.

1.-Dirulaguntzaren xede den jarduera 2025ko urtarrilaren 1ean hasiko da eta 2025ko abenduaren 31 baino lehen amaituko da.

2.- Entitate onuradunak Bizkaiko Foru Aldundiari eskatu ahal izango die dirulaguntza, jarduera egiteko epealdia amaitu baino lehen, emate-ebazpena aldatzeko eta, ondorioz, finkatutako epealdiak luzatzeko, emandako zenbatekoa murrizteko edo jarduera osatzen duten ekintzak aldatzeko. Horretarako baimena emango da aldaketaren eragilea ezusteko inguruabarra izanez gero edo jarduera ondo burutzeko beharrezkoa izanez gero, baldin eta dirulaguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada eta hirugarren pertsonen eskubideak kaltetzen ez badira.

3.-Bizkaiko Foru Aldundiak laguntza hori emateko ebazpena aldatu ahal izango du ofizioz, entitate onuradunari entzun eta funtsak aplikatu aurretik, kasu honetan: laguntza emateko kontuan izan diren baldintzak aldatu badira eta, aldaketa horren ondorioz, xede den interes publikoa lortzea eragozten edo arriskuan jartzen bada, eta onuradunari kalte ekonomikorik eragiten ez bazaio.

HAMARGARRENA. - Justifikatzeko epea eta modua.

1.- *Justifikazioa Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean.*

reintegrarse el exceso junto con los intereses de demora correspondiente

OCTAVA. - Pago de la aportación económica, y régimen de garantías.

El abono de la aportación de la Diputación Foral de Bizkaia a la entidad beneficiaria de las cantidades establecidas en la Cláusula Cuarta se realizará una vez firmado el presente convenio.

No se exige garantía alguna a la entidad beneficiaria.

NOVENA. - Plazo de ejecución.

1.-La actividad objeto de la subvención se considera iniciada a partir del 1 de enero de 2025 y finalizará con anterioridad al 31 de diciembre de 2025.

2.- La entidad beneficiaria podrá solicitar de la Diputación Foral de Bizkaia, antes de que concluya el plazo para la realización de la actividad subvencionada, modificaciones de la resolución de concesión que supongan ampliación de los plazos fijados, reducción del importe concedido o alteración de las acciones que se integran en la actividad, que serán autorizadas cuando traigan su causa en circunstancias imprevistas o sean necesarias para el buen fin de la actuación, siempre que no se altere el objeto o finalidad de la subvención y no se dañen derechos de terceros

3.-La Diputación Foral de Bizkaia podrá modificar de oficio la resolución de concesión, previa audiencia de la entidad beneficiaria y antes de la aplicación de los fondos, cuando la alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión impida o dificulte la consecución del interés público perseguido y no se irroguen perjuicios económicos al beneficiario.

DÉCIMA. - Plazo y forma de justificación.

1.- *Justificación ante la Diputación Foral de Bizkaia*



Dirulaguntza kudeatzen duen zerbitzua
Ingurumeneko Zuzendaritzako Ingurumen
Kalitateko Zerbitzua da.

El servicio gestor de la subvención es el Servicio
de Calidad Ambiental de la Dirección de Medio
Ambiente.

Entitate onuradunak 2026ko martxoaren 31 baino
lehen egiaztatu beharko ditu ekintzak, aurreko
urtea aintzat izanik. Horretarako, agiri hauek
formalki igorri beharko ditu Bizkaiko Foru
Aldundiaren Ingurune Naturala eta Nekazaritza
Sustatzeko Sailera:

La justificación de las acciones realizadas por
parte de la entidad beneficiaria deberá
efectuarse antes de 31 de marzo del 2026
mediante la remisión formal al Departamento de
Medio Natural y Agricultura de la Diputación
Foral de Bizkaia de la siguiente documentación:

1.- Justifikazio-kontu bat. Hor, ezarritako
baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen
jarduera-txosten bat izango da, egindako jarduerak
eta lortutako emaitzak azalduta. Memoria horrek
atal espezifikoak izango du, egindako ekintzak
genero-ikuspegitik ebaluatzeko eta egindako
ekintzen datuak sexuaren arabera bereizita eman
beharko dira. Horrez gain, egindako jardueraren
kostua egiaztatzen duen txosten ekonomiko bat ere
izango da, diruz lagundutako jarduerari egotzitako
sarrera eta gastuen egoera azalduta (BFAk
egindako ekarpena barne hartuko da). Diru-
sarreraren eta gastuen egoera-orriak II. eranskinean
ageri den egitura izango du Diruz lagundutako
jardueraren diru-sarreraren eta gastuen egoera-
orria osatzen duten partida guztiek martxoaren
23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 57. artikuluan
azaltzen den edukia izango dute. Gastuen egoera-
orria osatzen duten partida bakoitzeko, diruz
lagundutako jardueraren gastu eta/edo inbertsioen
zerrenda sailkatua, hartzekoduna eta dokumentua,
zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio,
ordainketa-data adierazita

1.- Una cuenta justificativa que contendrá una
memoria de actuación del cumplimiento de las
condiciones impuestas, con indicación de las
actividades realizadas y de los resultados
obtenidos. Esta memoria contendrá un apartado
específico de cara a evaluar las acciones
realizadas desde una perspectiva de género,
debiendo aportar datos segregados por sexo de
las acciones realizadas, así como una memoria
económica justificativa del coste de la actividad
realizada, que contendrá un estado de ingresos
(incluida la aportación de DBF) y gastos
imputados a la actividad subvencionada. El
estado de ingresos y gastos responderá a la
estructura del Anexo II. Cada una de las partidas
que componen el estado de ingresos y gastos a la
actividad subvencionada, se ajustarán al
contenido previsto en el artículo 57 del Decreto
Foral 34/2010, de 23 de marzo. Para cada una
de las partidas que componen el estado de
gastos, una relación clasificada de los gastos y/o
inversiones de la actividad subvencionada, con
identificación del acreedor y del documento, su
importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de
pago.

.Dirulaguntzen araudia onesten duen martxoaren
23ko 34/2010 Foru Dekretuko 57.2. c) artikuluan
ezarri denarekin bat erakundea salbuetsita
egongo da memoria ekonomikoan fakturak
aurkeztetik edo agiri baliokideak aurkeztetik eta
justifikazioaren egiaztatzea laginketaren bidez
egingo da.

De conformidad con lo dispuesto en el
art.57.2. c) del Decreto Foral 34/2010 de 23 de
marzo por el que se aprueba el Reglamento de
Subvenciones, la entidad estará exenta de
presentar facturas o documentos equivalente
incorporados a la memoria económica y la
comprobación de la justificación se realizará
mediante muestreo.

Horretarako, memoria ekonomikoa aurkeztu
ondoren, Ingurumenaren Kalitatea Zaintzeko
Zerbitzuak adieraziko zer faktura edo
merkataritzako trafiko juridikoan haien froga-balio

A tal fin, una vez presentada la memoria
económica, el Servicio de Calidad Ambiental, le
indicará que facturas y/o demás documentos de
valor probatorio equivalentes al tráfico jurídico



baliokidea duten gainerako zer agiri aurkeztu behar dituzun (jatorrizkoak zein haien kopiak), haiek egiaztatzeko.

Beharrezkoa izanez gero, Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araudi juridiko orokorra ezarri duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 29. artikuluko 3. idatz-zatian ezarritakoa bete duela frogatu beharko du: gutxienez hiru hornitzailei eskatu diela eskaintza.

2.- Bizkaiko Foru Aldundiak emandako dirulaguntzaren egiaztatzea.

Ingurumen Kalitateko Zerbitzuak honako hau egiaztatuko du:

1.- Proiektuaren edo egindako jardueraren gaineko azalpen-memoriaren edukia.

Memoria horretan, egindako jardueren alderdirik garrantzitsuenak jaso beharko dira.

2.- Erakundeak aurkeztutako txosten ekonomikoaren edukia, sarrerak eta gastuak zehaztuta. Halaber, Ingurumen Kalitateko Zerbitzuak lagin gisa eskatutako eta merkataritza-arlo juridikoan egiaztatzeko balio duten fakturak edo agiriak zuzenak direla eta diruz lagundutako jarduerarekin bat datozela egiaztatuko da.

Egiaztapen hori Ingurumenaren Kalitatea Zaintzeko Zerbitzuaren txostenean agertu beharko da.

Txostena onuradunek dokumentazio hori aurkeztu ondoren egingo da, gehienez ere hura aurkezten denetik 4 hilabeteko epean.

HAMAIKAGARRENA. - Diru-laguntzaren justifikazio egokia bermatzeko berariazko kontabilitate erregistroak.

mercantil de las recogidas en el estado de gastos deberá presentar en original y copia para su comprobación.

Asimismo, deberá de acreditar, en su caso, el cumplimiento del apartado 3 del artículo 29 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, relativo a la solicitud como mínimo de tres ofertas de diferentes proveedores.

2.- Comprobación de la subvención concedida por parte de la Diputación Foral de Bizkaia.

Por parte del Servicio de Calidad Ambiental se procederá a la comprobación de:

1.- El contenido de la memoria técnica explicativa del proyecto o actuación llevada a cabo.

En esta memoria, se deberán recoger los aspectos más relevantes de las actuaciones realizadas.

2.- El contenido de la memoria económica detallada de ingresos y gastos presentada por la entidad. Así mismo se verificará que las facturas o documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil, que hayan sido requeridas por el Servicio de Calidad Ambiental a modo de muestreo, son correctas y se corresponden con la actuación subvencionada.

Esta comprobación se plasmará en un informe del Servicio de Calidad Ambiental

Este informe será realizado una vez que las entidades hayan presentado dicha documentación y en un plazo máximo de 4 meses desde su presentación.

UNDECIMA. - Registros contables específicos para garantizar la adecuada justificación de la subvención.



1.- Diruz lagundutako programa edo jarduerari dagokionez, entitate onuradunak kontabilitate bereztua egin beharko du, bai kontabilitate ofizialaren barruan berariazko kontuen bidez, bai xede horrez irekitako erregistroen bitartez. Justifikazio-kontuaren euskarria izango dira.

2.- Kontu edo erregistro horietan gastuen egoera osatzen duen sail bakoitzaren kasuan, banan-banan, fakturak edo gainerako gastu frogagiriak azalduko dira eta hartzekoduna nahiz dokumentua identifikatuko dira, baita zenbatekoa BEZ eta diru-laguntzarik jaso ezin dezaketen gainerako zergak kanpo, igorpen- data eta ordaintze-data ere.

3.- Era berean, diruz lagundutako programari edo jarduerari aplikatuko zaizkion bitartekoak jasotzen dituen diru-sarreraren sail bakoitzean banan-banan fakturak eta diru-sarreraren frogagiriak azalduko dira, eta zorduna, zenbatekoa eta data identifikatuko dira.

HAMABIGARRENA. – Azpikontratazioa

1.- Hitzarmen honen ondorioetarako, azpikontratatu dela ulertuko da diru-laguntza jasotzen duen erakunde onuradunak jarduera oso-oso-oso edo zati batean hirugarrenekin egitea hitzartzen duenean.

2.- Entitate onuradunak oso-oso-oso edo zati batean azpikontratatu dezake diruz lagundutako jarduera, honakoak betetzen baditu: maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 27. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuko 53. artikuluan adieraziko eskakizun eta debekuak.

3.- Entitate onuradunak jarduera %100ean azpikontrata dezake, baina proiektuaren zuzendaritza zuzenean berak egin beharko du, ezin izango du azpikontratatu.

1.- La entidad beneficiaria deberá llevar una contabilidad separada del programa o actividad subvencionada, bien mediante cuentas específicas dentro de su contabilidad oficial o bien mediante registro abiertos al efecto, que serán soporte de la cuenta justificativa.

2.- En dichas cuentas o registros se deberán reflejar para cada una de las partidas que componen el estado de gastos, una por una, las facturas y demás justificantes de gasto con identificación del acreedor y del documento, su importe con separación del IVA y demás impuestos que no sean subvencionables, la fecha de emisión y fecha de pago.

3.- Igualmente, cada una de las partidas de ingreso que recogen los recursos aplicables al programa o actividad subvencionada, deberán reflejar una por una las facturas y demás documentos justificativos de ingreso con identificación del deudor, importe y fecha.

DUODÉCIMA. – Subcontratación

1.- A los efectos de este Convenio, se entiende que se produce subcontratación cuando la entidad beneficiaria de la subvención concierta con terceros la ejecución total o parcial de la actividad que constituye el objeto de la subvención.

2.- La entidad beneficiaria podrá subcontratar total o parcialmente, la actividad subvencionada, de acuerdo con los requisitos y prohibiciones establecidos en el artículo 27 de la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo y el artículo 53 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010 de 23 de marzo.

3.- La actividad que la entidad beneficiaria subcontrate, podrá llegar al 100%, reservándose siempre la acción directa de la dirección de la actividad, que no podrá ser subcontratada.



4.- Hirugarrenekin itundutako jarduera diru-laguntzaren % 20 baino handiagoa bada eta, horrez gain, 25.000 eurotik gorakoa bada, kontratua idatziz formalizatuta egon beharko da eta baimena eskatu beharko zaio Ingurumen Zuzendaritza nagusia eta Zerbitzu Orokorrak Bideratzeko Zuzendaritzaordea Nagusiari. Zuzendaritzaorde horrek 15 eguneko epean ebatziko du. Aldi horretan berariazko ebazpenik eman ezean, baimena emantzat hartuko da administrazio-isiltasun bidez.

5.- Foru Administrazioak, preskripzio-denboraldiaren barruan, azpikontratutako jardueren kostua eta merkatuko balioa egiazta ditzake, 34/2010 Foru Dekretuak, martxoaren 23koak, 5/2005 Foru Araua, maiatzaren 31koa, Foru Administrazioak emandako diru-laguntzen lege-araudi orokorra arautzen duena, garatzeko diru-laguntzen araudia onartzeari buruzkoak, 72. artikuluan xedatutakoarekin bat.

HAMAIUGARRENA. - Zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak.

Entitate onuradunak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatu beharko du, laguntza emateko ebazpen proposamena ezarri baino lehen.

